

PREDIKUAK INTZA, 1801

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PREDIKUAK INTZA, 1801

I

Natividad de Maria Santisima.

8 de Setiembre. Año de 1801

Liber generationis Jesuchristi, filii David, filii etc.

(Math. c 1, v 1).

Egungo evang. onetan, cein esribitu baizuen San Math. evang. manifestacen zaicu Marie Santisimaren, eta onen seme Xpren. ascendenci paregabe ure. Ematen digu bada adicera nola den Marie Sme. Guraso guztiz noble bazuen alava; Erreguen, Patriarcaren eta Santuric excelente, eta aundienaren linagecoa; eta izenic ain noblea naturaleza onen parteti, eztela ala ere au, Marie Smrn. excelencieric aundiena. Valgame Jaungoico Soveranoa! Cer diche aundiegoric izen dezaque batec,(esanen direzue) Erregueren, Patriarca, eta Santuetatic descendicea bañen? Ordena comun, edo naturalezaren parteti claro dago ecez, bañen bai, gracieren partetic; eta au de ceñec eguin izandu zuen Marie Sme. Erregue guztiec bañen nobleago, Patriarcac bañen exelenteago, eta Santu guciec bañen ere ilustreago.

Bada baldin Marie Smrnzat. baldin bada diche, orden Comun edo naturalezaren parteti, Erreguen, Patriarca, eta Santuetatic descendicea, Aundiegoa da bai oraindikuen, onen guraso, eta gañeraco ascendientearenzat, izatea bere linean aurcho bat, edo criature bat, ceñec bere Jaioc dichoso, edo jaio cen den instante artati bereti ilustraturic uzten ditun Elize guztiec, ilustraturic triunfantea, cein den cerucoa, ilustraturic Militantea, cein den munducoa, eta ilustraturic Purgantea, cein den Purgatoriocoa. Cunctas illustrat ecclesias! O aurcho, edo infanta, feliz, eta dichosoa! Norc esanen du ez dela arrazoia aundie, cantaceco publicamente gure Ama Eliza santac, eta guc onequin batean, zure nacementu, edo jaioc dichosoac anunciatu, eta eman ciola mundu guztiri gozo aundi, eta contentu, edo consuelo particular bat? gaudium anunciabit universo mundo. Bai nere christio fielac, gaurco egune da, egun feliz, eta dichosoa gurezat. Gaurco egune da, Profeta santuec aunciñe pronosticatu ciguen egun ure, Patriarca santuec esperatu zuena, eta siglo guztiec allegaceco aibeste deseorequin egondu cirena. Au de egune ceñetan (San Geronimo batec esaten dun bezala) iriquicen diren San Joaquin eta Santa Ana, Virgiñe Marieren Guraso aien ate esteril aiec, emateco gure Redentoreari, ateric virgiñen eta divinoena. Eta ceñetati sartu bear zun Jaungoico bat corporalmente gure gaiz guztic remediaceco. Au de egune ceñetan descubritu zun Jaungoicoac bere escu propios labraturic ceuquen escallera vici ure, ceñetatic jechi bear zun Jaungoicoac berac cerutic, munduen vistatue izateco, eta trataceco munducoaquin, eta batetan esateagatic, eta obequi comprendiceagatic, Au de egune aguertu izanducenco, eta jaio mundure Andre virgiñe Mari, Princesa, eta Erreguiñe Soverana ori. Bañen nola pensacen dezue jaiocen dala?.

O balgame Jaungoico Soveranoa! ez beste criaturic jaiocen diren bezala negarra, eta suspirioen artean, baiciquen arrebataturic extasis altissimo bateti esaten du, Ama Venerable Maria Jesus de Agreda batec: ez beste criaturec bezala, juicioric, eta discursoric bague, baiciquen gucie ilustraturic joiocen den instantetic arrazoiaren arguierequin, esaten du San Bernardino de Sena batec: Ez beste criaturec bezala graciric bague, eta pecatuen; baiciquen guztie pura, guztie ederra, guztie Santa, eta en fin guztie graziez betea, esaten du Santo Tomasec.

Alegra zaresta bada Adanen semeac, cergatic eze, baldin Santueren bat jaiocen dan orduen (erocin delaric au), causacen badu mundu guztien alegrie, ceren datorren guztion oneraco, motibo gueiagorequin bear degu guc alegratu, Andre Marie Virgiñe, Princesa Soverana ori jaiocenco egun onetan, ya ceren den ceruen eta lurrean arquicen den criatureric Santaena, bere seme maite, eta gure Salvadore J.C. landara, ya baita ere, ceren orren medioz logracen degun ateracea, gure lendabico gurason pecatueren medioz guztic sumergituric arquicen guiñen cautiverio Eternoarretati, egun onetan Ama Elize Santa bereraño manifestacen zacu bere errezo, eta cantuetan guztie alegre, eta gozos beteric, ceren virgiñe Andre Marie jaiocerequin logracen dun bere seme catolico (...) guztien salvacioa per quam salus mundi credentibus aparuit eta encargacen ditu alaco instacierequin eta Erreguerequin bere Semeac acompañaceco gozo, eta alegri onetan, esan dezaquelaric Ysaías batec beste dembora batean bezala, letamini cum Jerusalem. (Hixos) Eliceren seme maiteac, ain Ama onaren semeac alegre zateste Amarequin batean, ceren Virgiñe Marieren jaiocac causacen dun alegrie Mundu guztin: Alegra zateste bai ceren jaio den ya campoco lore eder ure, ceñec producitu bear dun ez guchigoric ez pada munduco Redentorea. Trinidad Jaun Poderosa bereraño alegratu izandu zala esaten du Puente Venerableac jaioc dichoso onezaz. Alegratu cen Aite Eternoa ceren jaio ciecean alava bat jaio ditequean ederrena, Alegratu cen semea ecustearequin jaioric munduric ecen dembora ezquero bere Amazat escogituric ceuquen emacume edo Andre dichoso ure, baita

ere Espiritu Santu Jaune ecustearquin ya Munduen Doncelle virtuosa ure, ceñec izan bearzun bere esposaric Estimetuena, eta amatuena. Bada baldin ceruec berac, eta guztien criadorea alegratu baciren virgiñe Andre Marie jaiocaz, Arrazoia izanen da bada nere fiel amanteac gure alegraceco, jaioc dichoso onezaz gueiena interesacen dugun bezala; eta izen didin gure alegriau completoa, eta perfectoa, Elizec deseacen dun bezala, goazen orain ecustera virgiñe Andre Mari orrec Mundure etorteco izandu zuen fiñe edo motivoa.

Eguin zun pecatu gure lendabico guraso Adanec gucioc daquigun bezala, eta pecatu onen resulteti guelditu cen guizona ain esttadu miserable batean, ece oñetic asi eta burureño esaten du Isaias batec ecizaiola guelditu gaue osoric, eta sanoric; guztie guelditucen llagas, enfermedades, dolores, miseris, desdichez, eta lastimez beteric, anime, eta corpucean, araco beste guizon pacienci aundico ure bezala, esan naidut Job Santubet bezala, arquicen cen orduen ocollu bastar arretan materituric, eta podre bat eguiñic, guztie espectacularic orrosoena, eta espantagarriena eguiñic. Estadu lamentable onetan corritu zun munduec Adanen demporati, Jesuchristoren etorreraño: experimentacen zularic bacuicec bere burueren gañean Jaungoicoaren escuti castigu, eta rigurosidaderic aundienac iñon ere amparoric ecin billetu zuela, ez ceruen, ez lurrean, ez ta ere infemuen ere: O cer demborac oc nere christioac ain lastimegarriec! Ciertamente causacen du orrosidade eta icara aundie, estendiceac batec bere biste Escriture Sagradure. Lendavico ojatic ezta adverticen beste gauceric, ez pada Jaungoico vengadore baten ire, guizonaren contra; apenas bada criatu zun guizona, nola bereala cicecan penatu criatue, eta au ez nola nai, baiciquen amenazacen ciolaric furiric aundienarequin biurto bear zuela ecerecera, eta arequin batean gaue guztie: eta efectivamente paracen zularic parte execucioan vialcen du dilubio bat ain orrosoa, eta anegacen da mundu guztie, gueldicen cirelaric tan solamente muenduen libreac zorzi persona: beste ocasio batean ondoren bialcen du su abrasagari bet ceruti, eta su onequin uzten ditu auz biurturic Sodomaco, eta Gomorraco ciudadeac, beren habitadoreaquin ciudade oetan bietan cometecen tiren pecatueren medioz irritaturic: eta en fin guztie cen rigurosidadea dembora arretan, eta motibo onen gati izeguiten zularic Prof. Erregueac bere Jaungoicoarequin esaten zion humildade aundi batequin: jaune: non ocultetu, edo ezcutatu nateque verorren ire, eta indignacioti? baldin iocen banaiz Cerure berorren iren iesi, an epacen dut guztie enojaturic, eta indignaturic: baldin jesten banaiz lurrera, an arquicen da pnte.: baldin egan pasacen banaiz ichasoaren beste aldera, an arrapacen nau berorren escuñeco escuc. Clamore triste oetan, quexa lastimoso oetan, pasacen cituen gure antigocoac egunec, eta gabec, aimbete gaicerenzat remedio bat ecin epatu zuela; cergatic ece ecen dempora infeliz autan lecuric, nora acogitu, edo arrimetu, amparaceco, eta defendiceco, Jaungoicoaren justicieren golpetati, ezta ere iñor detenitu zezaqueanic Jaungoicoaren besoco indarric, golperic eman ezezan pecatari miserablen gañean: Eguie da nere christio fielac, arquicen zala orduen ere, orainche bezala Jaungoicoarengan piedadearen, misericordieren, vicieren, eta salvacioaren iturrie: bañen cer importa da, esatendu, David Erregueac, baldin iturri onetaco ubrec, baldin baceuzquen Jaungoicoac recogituric beregan? Ceuzquen bai ubreoiec detenituric beregan estanque batean bezala, bañen cer dugu cer extrañetu, nere Catolicoac, baldin ez pazun iturrionec dembora arretan canalic, eta conductoric nondi comuniquetu bere ubrec? Au de bai motiboa ceren cen dembora arretan guztie rigurosidadea: Bañen ya (Jaungoicoari graciec,) jaiocarequin virgiñe Andre Mariori egun onetan, comunicacen dire abundantemente Jaungoicoaren justicieren guilcec, beste dembora arretan munducoarenzat encerraturic ceuzquen graci aiec: ya egun dichoso onetati aurrera, eguiten dire Jaungoicoarequin Pecatarieren arteco paqueac: ya egun onetati, erori cen, eta puesquetu, Jaungoicoaren comunicacioa lurreraco, detenituric ceuquen muralle fuerte, eta gogor ure, eta iriqui cicecan, eta paratu francamente pasoa, cerueren, lurreren arteco comercioari.

Bai nere auditorio maitea bai, Virgiñe Andre Mari ori izandu cen jaiocen instante artati bereti, abitu zana templacen Jaungoico Vengadore baten ire, comberticen zularic ire au, compasio, eta misericordin: Virgine Andre Mari ori izanducen, jaio cen egun feliz, eta dichoso onetati proporcionatu cigune diche bat ain aundi, eta singularra; cergatic ece, penetracen citularic bere Virginidadeco raio aien aiceac, sobrepujacen citularic Aingueru guztiec, eta pasacen celaric egan astro gucien arteti, arqitu izandu zuen Verbo Eternoa bere Aite Eternoaren pechu celestial arretan, eta ateraric andi eta sarturic bere virginidadeco pechun, obliguetu zun jestera lurrera, eta modu onetan componcera gauce guztiec: orra claro jaquin dezazuen virgine Andre Mari ori, Mundure etorteco izanduzun cause, eta motivoa, izateco Jaungoicoaren Ama; izateco gurequin Jaungoicoaren arteco medianera; Jaungoicoac mundu guztieren contra amenazacen zun ire Divino arren sue izalceco; eta por consiguiente sumergituric, eta abatituric arquicen guiñen miseri atati aterararic, Ceruco glori eder arretan conduciceco. O cer diche nere Catolico maiteac den zuena, eta nerea, eduquicea trono orretan gueren Patronozat, Santiago Apostol aundi orrequin batean Ama bat aimbeste dezaqueana!.

O Virgiñe Marie, criature gucien artean Sancta, eta dichosoena (despues dichosoo) cenbat zor diogun Adanen Semeoc zure jaiocce dichoso, eta preciosoari! Zu cerade jaio ciñen instanteti, Jaungoicoac bere enojue uzte zulaco señale ciertozat lurrean, eta gueiago dilubioric gure artera bialduco ez zulaco plantatu zuen ostillera, edo arco iris ure. Zu cerade egun feliz, eta dichoso onetatic aurrera Jaungoico batec justamente indignaturic Adanen semean contra dauquen ire, eta colera Divinoa aplacacen dezune. Zu cerade jaio ciñeneti, Noé baten Arca, edo Cuche feliz ure, ceñetan allegatu ciren salvacera, edo librecera, eztut esanai tan solamente zorci persona arca, edo cuche arretan bezala, baiciqan ere bai mundu guztie. Zu cerade bai, (bañen certaco cansatu bear dut) izenen baliceteque beñere ez acabacea, baldin esan bear banu Virgiñe Andre Mariorri zor diogun guztie.) asco dabada jaquitea ori izandu zala mundueren reconciliadora, eta munduen paquea paratu zuena, Araco Serpiente infernal arri, ceñec aimbeste dañu eguin zun munduen, valoreric aundienarequin lepoa ebaqui cion emacume, edo Andre fuerte ure. Demonioac serpientearen figuren engañetu bazunere Eva, eta onen medioz etorri bacicecun maldicio eternoa, ecen ez faltatu beste emacume bat au remediatu zuena, maldicio au bendicioan truquetu zuena; bada lo mismo izandu zen virgiñe Andre Mariori jaioccea, esaten du San Bernardoc, nola bereala quencea Demonioari zun orgullo guztie, citun indar guztic, eta vencituric uztea. Ezagutu zun bai au Demonioac berac ere, bada Santa Brijida da esaten duna, Virgiñe Andre Mariori jaio zanean, azquenic Demoniotaraño izandu zuela jaio celaco arguitasune, eta guelditu cirela guztiec asustaric, alaco moduen, ece iceguiten zuelaric alcarren artean esaten zuela; jaio da bai instante onetan aurcho bat, guero ondoren nor icen bear dulaco señale milagrosoarequin. Cer eguiñen dugu aurcho onequin (esaten zuen alcarren artean) baldin apliquecen badazquiogu gure malicieren sare guztic ere, guztic pusquetuco ditu mulloa bezala; baldin pasacen baguera tentacera orren barrumbea, alaco moduen fortalecituric arquicen da, ece ez degu arqituco orrengan batere mancheric, nondic eransi pecaturic chiquienaren rastroric. O cein bildur izen gatesquean, orren purezac atormentatuco gatulaco, orren gracic destruituco dulaco gure fortaleza guztie, eta orren constancic obligatuco gatulaco postracera vencituric beraren oñetara! Au izandu cen Virgiñe Andre Mari ori jaio cen instanteti Demonioac artu zuen bildurre, eta ciertamente ala guertature cen, bada baldin emacume batec lagundu bacion ere Demonioari Mundu guztiti introducioa arcen, eta guztiei aguincen, beste emacume batec despojatu, eta jendu izandu cion lenago ceuquen posesioa, (claroago iceguiteagati) baldin Evac entregatu bacion ere mundue Demonioari, Virgiñe Andre Mariorrec jendu izandu cion, eta bota

zuen infeliz, eta desdichetu onec paratu zun lecuti: de modo que Ynfernucio Demonio au, mundue Cautibaceco valitu cen medio arzaz beraz, guelditu cen bera, rendituric, eta cautibaturic, cautiverioric miserablanean.

Bedicatue, eta alavatie izan bidi bada Jaungoicoaren bondadea, cein dignatu cen criacea Adanen Semearen arteti criature bat, edo emacume bat ain ederra eta dichosoa. Eta Zu Virgiñe Marie, Andre gucien artean emacumeric feliz, eta dichosoena, San Joaquin eta Santa Anaren honra, gure naturalezaren edertasuna emacume gucien ornamentue, gracieren iturrie, Evaren Seme triste, eta desterratuen restauradore dichosoa. Dichosoac izanbitea bada Zu formatu ciñen entrañe aiec, dichosoac Zu aciceco bularra eman zuen pechuaec, eta dichosoac zure aurtasunean Zuri musu, eta laztan amorosoaz gozatu zuen ezpaiñe aiec. Bai Santa Anaren frutu, eta prenda dulcisimoa: Arrazoiarequin zara deitue Andre gucien artean bedicatue, eta bienaventurada, cergatic Zu ceren Sacerdoten glorie, eta christio guztin esperanza bacarra. Alegrabitea bada San Joaquin eta Santa Ana, ceren ematen duen aimbeste glorie egun onetan ceruri, ain tesoro aundie lurreri, alaco gozoa Aingueruei, eta ain contentu, edo alegri justoa Munducoai.

Alegra gatecen bada gu ere nere Cat. amante. oequin batean Marie Santisimaren jaiococo egun dichoso onezaz, cein datorren Mundure gurequin Jaungoicoaren arteco gaucec componcera, eta vitarteco, edo medianera izateco. Eman dizquiegun guztioac graciec San Joaquin eta Santa Anari, Virgiñe Mari orren Gurasoai, ceren eman izandu cigun onelaco frutue, eta gucien gañean Jaungoicoari favore imenso onengati; eta virgiñe Andre Mari orri asco mille esquer, en orabuena, eta alavanza bere etorreras. Au de bada gure Ama Eliza Santac egun onetan gure artean deseacen dun gozo, eta alegrie celebraceco Marie Santissime jaiococo egun au, modu onetan prosegui dezan aurrerare Señora onec guri favorecicen, eta orain ezaguturic gure arain ñiñoco procedimentu gaiztoa, gueren pecatuen dolore, eta damutasun aundibatequin, apartaturic gueren vioza Mundu onetaco gauce, eta eraqueritati, allega gatecen guztioac Señora orrengana escacera confianza aundi batequin gueren animeco salvacioa.

Virgiñe Andre Marie, Jaungoicoaren Ama, Ceruco, eta lurreco, Erreguiñe Soverana, alegracen guera bai gu, zure diche, eta privilegio guztiez; guztioac deseacen degu zure etorrera egun onetan, guztioac gaude esperan, atoz bada Santa ordu onean, eta nere viozaz eguizu zu descansaceco oacea. Badaquit correspondicen zazune abitacio garbie, nere viozac ez dauquena, eta argatic zu deicen zatut Ama misericordiosa, etorri zateala garbicera lurreco ciquintazun guztietati, mundu onetaco gaucec neregandi desprendiceco. Badaquit Ama nerea, orain niño izandu naizcena, eta naicena pecatari miserable bat, izandu dutena valorea zuri sentimentu emateco ofendicearequin zure seme maitea; bañen ya cer eguin aldezaquet nic: nora arrimetu alnaiteque bada! nora, baiciquen Zuregana, ceñec jaiococo ciñen instanteti manifestatu ciñequion mundu guztiri ciñela Misericordieren Ama? Zure izalera bai arrimecen naiz Princesa Soberana, izen dezazun nizaz compasioa, eduqui dezazun piedadea, bada beste gañeracoan badaquit galcen naicena remedioric gabe. Zu cerade bai afligitu guztin consoladorea, Zu cerade necesitu guztin socorru; generacio guztic bediquecen zatue zu, triste guztic billecen zatue, criature guztic zurequin alegracen dire, guztic deicen zatue, eta guztiei respondicen diezu, eta guztiecgati erregucen duzu. Cer eguinen dut bada nic Pecatari miserable onec, baldin zuc ez panazu amparacen?.

Ea bada gucion Ama, eta Abogada, beguire dezazu cenbat deboto zureac etorri diren templo santu onetara Zure jaiococo dichosoa celebracera; guztioac arquicen guera reconocituric Zu mundu onetara jaiococorequin logratu ditugun favoreaz, eta orain

azquenean guztion nombrean escacen dizudena da, uqui dizezule gure bioz gogorrac zure amorioco su eraciqui orrequin mugui ditecen negar eguitera gueren pecatuez, onen medioz, eta zuri ematen dazquizuguleric veneracioac, eta obsequio reverenci aundicoac, mundu onetan, izan dezagun diche guero zu alavazen eternidade gucin ceruco glori eder arretan egoteco. Amen.

Dicho el año 1801: en Inza -Elordi

Aprecio de la Gracia

Cembat difrencie die Guizon bat estadu gracizcoan egoteti, becatu mortalean egotera.

Guizon bat dagoana estadu gracizcoan, ain diferentea da becatu mortalean dagoati, nola den guizon bat, animali bateti; guchi esan dut, aifñ diferentea da, nola Aingueru bet, Demonioagandi; Guizon bat estadu gracizcoan da Aingueru bet, da Contetue, da diversioa, ta aseguife, Jangoicoana, delititiae meae cum filiis hom.: da templo bat, da baraza eder bat, non diverten ta contentazen den Jangoicoa, eta Santuc: Guizon bat graciric bague, becatu mortalean, da animali bet leguaren frenuric bague, ta arrazoiyaric bague, da Demonio bat oraño Demonioa baño gaiztoago; au zen diferencie cena, Saul gracin cegoaneti, Saul becatun cegoanera, au Davideti, Davidera, au Salomoneti Salomonera, au Paublotti Publora, au Magdalenati Magdalenera, ta Judaseti Judasera. Nor zen Saul, gracin zegoanean, ta nor izandu zen becatun zegoanean? Grazin zegoanean hizandu cen humille paciencicoa, sufritue, obeditue bere Gurasotara, sencilloa, innocentea, aumberaño, dio escriture Santac cela urte bateco aurre bezela: Baño gracie galdu zunean ¿Nor izandu cen?, ez besteric baici ifarnuco serpiente bat, soberbioa, ambiciosoa, errabiz orzac istencituna, ecusteaquin Davidec reinatu bear zula; pacienci baguea, desobedientea, guezurtie, juramentu guillea; errabie ceñequin perseguitu zun David, gueigo zen Deabrina guizonana baño, cergati ez bacarric egondu cen endemoniaturic, baici bera eguin zen Demonioa, beguiretu cer diferencie din Saul gracin egoteti, becatun egotera.

Bada cer esango dut Davidez? Cer izandu cen David Jangoicoan gracin cegoanean?, izanduzen ain bondadosoa, paqueosoa, Jangoicoac berac esaten zun, epatu zula bere viozan leurricoa, arc deseazen zun bezalacoa; baño gracie galdu zun ezquero, gueitu zen eguifñic serpiente errabioso batean, leon furi gaiztoco batean, ala ileci zun traizioz Urias Inocentea; Cer izandu zen cause mudanza onena?, gracie galzea, becatugati, o becatue nor izango da billurre eztona?, o gracie nor izango da estimazen ezduna?

Nor izandu cen Salomon gracin cegoanean? Izandu cen munduan izandu den Guizonic jaquinsuna, izandu zen ain religiosoa ta virtutecoa, eguin eta consagratu cion Jangoicoari Templo edertasun zoragarrico ure, aberastasunez, betetaco ure, mundun alacoric izandu ez den bezalaco ure; galdu zun gracie, bela jarri zen mundun cen guizonic dibillena, ta inutilena, emacume bazun aguinzea eguiten zula, ta Jangoico falsoac adorazen citula; esangazadazue orain, ¿cembat die, Salomon gracin egoteti Salomonon graci bague egotera?

¿Cer esango dut Judases? au gracin cegoanean; uzicitun acinda, diruc, honrrac, ta gauce gucic, eguiten cela Jesucriston discipulu, eta Apostol; gracie galdu zunean; saldu zun Jesu-christo bera, oqueita amar diruten; ecusi emen Judas, gracin cegoanean Apostol eguifñic, ta milagroac eguiten citula, ta gracie galdu zunean, Demonio bat eguifñic, ta Demomonioa baño gaiztoagoa.

Cer esango gu Marie Magdalenaz?. Nor cen Magdalena graie bague? cen genden escandaloa, cen Satanasen lazoa, cen moden da Galen lepicicoa, profana bere ibilleran, da izeguitan, ezn billeraric ure ezenic lepicicoa provocazen guztic gaiztaquerire, cen ifarnuco illiti bet; baño gracín jarri zenean izan cen penitencin ispilu bet, beguitati negarra gueitu bague, apartatue guizonen conversacio profanati, erretiratue desiertoan, non visitatu te regalazen zuen Ceruco Aingueruc. Ta cer zen San Pablo bat gracie bague cegoanean? cen Elizen perseguidorea, cen osso errabico bat cristau gucic acabazeco; baño gracín jarri cenean, cen Elizeren defensoric aundiena, cen genden Apostolu famatue, cen amatue, cen favorecítue Jangoicoagandi.

Ecusi emen, Christauec, cer den gracie, ta gracic eguin duna; ecusi cembat estimatu te apreciatu bear du(...)cie, ta cembat apartatu bear den becatuti: galdetu Luciferri, ta erresponduco dizue, Jangoicoan gracín cegoanean, cela Aingueru eder bat, gracie galdu zun bezala, convertitu cela Demonioan, galduzn Jangoicoa betico, ta eroricen ifarnutara, non egongo eternidade gucin penazen, desesperazen: bada exemplo on visten, ¿Nor estimatuco, ta goardatuco ez du gracie?, galdu dedille onrra, hacinda, munduco gauce gucic, gracie ez galzeagati: Galdu dedillela osasune, amigoac, gustoac, ta vicie bera, gauce oc ez galzeagati galdu bear badu Gracie.

Ecusi zagun cer eguin zuen Santuc gracie ez galzeagati; Santuc izandu zuenac ezaguna gracina, estimatu zuen, munduco gauce gucic baño gueiago; pasatu cituen dificultade gucic, galzen cituela, despreciazen cituela ondasunec, honrrac, gustoac, empleoac, dignidadeac, osasune, ta vicie bera batere ereperatu bague, aseguraueagati te aumentazeagati Jangoicoan erregalo gracín au: (...) du ceren Santuc, uzi zuenac beguic aterazen, besteac uzi zuenac ebaquicen escuc, eta oñec, besteac uzu zuenac bere burue viciric jatera animalí gaizto bazura, gracie ez galzeagati: San Quirinoc uzi zun ebaquizen oñec, eta escuc, gracie ez galzeagati; San Serapin Martirec, ez bacarric uzizun ebaquizen oñec, eta escuc, baici bere corpuz gucie, pedazuc eguin artean, graie ez galzeagati.

Cer esangogu beste Santuz beren borondatez martirizazen cerenac billurrez becatun erorico oteceren, ta gracie galduco otz zuen. San Martinianoc izandu zun tentacio batean, eguin zun su aundi bet, ta oñ usetan, pasatu zen sun, errezen celaric bere curpuzan parte aundi bet, suti aterata galdezen cion bere bururi, cer idurizen zac Martiniano?, au onada?, bada acordari, Ifarnuco sue beticoa dela, su au arequin comparatuc izala dela, pintatue dela besteric ez, ta berriz (bu)eltazen zen sure ta erre gueigo ta gueigo.

(...) zenda bat ecusteaquin floxedadea, ta adizeaquin escusec, ascorenac apartazeco ocasio gaiztotati, ta gracie galzeco pelugrutati, escusazen derela aziqui gaiztoaquin; becatu eguítuco peligrue denean, bota bear ditu dificultade gucic, andi escapazeco; ezta ondasunic ez lurrean, da ez Cerun, becatu eguítuco; galdu dedille gucie, baño ez gracie, galditecela munduco ondasun gucic, baño ez galdu Jangoicoa; galdu ditecela amigoac, aydeac, conveniencie, onrrac, osasune, ta vicie ta ez dedille galdu Jangoicoan gracie, cergati guizona gracie bague da animalí bat, Demonio bat, asegurauea gracie ta animen salvacioa da valio duna, naiz galdu beste gucie.